



#mareaurdina

MAREA URDINA ELKARTEA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen
inklusioaren aldeko taldea

2024 URTEKO MEMORIA



AURKIBIDEA

1. ELKARTEAREN HELBURUA	2
2. GENERO ERAGINARI BURUZKO INFORMAZIOA	3
2. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK	4



1. ELKARTEAREN HELBURUA

Helburua bakarra da, aniztasun funtzionala duten pertsonen INKLUSIOA (bai, letra larrietan). Inklusioa ez bakarrik eskolan, baita kirola, kultura eta aisi aldian ere. Gure bailarako aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian sortzen diren aktibitate eta dinamika ezberdinetan leku bat izan dezaten egingo dugu lan, horretarako herriko agente eragile ezberdinei (udal, kirol elkarte, musika eskola, edozein ekimen...) inklusioaren “betaurrekoak” jartzen saiatuko gara.


Iaz Marea Urdinera “zertan lagundu dezaket?” galdera eginez gerturatzen zirenei “zer dakizu egiten?” galderarekin erantzuten genion. Hemendik aurrera gugana gerturatzen den orori “eta zuk/ek zer egin dezakezu/e inklusioaren alde?” galdetuko diogu.

Herrian sortzen den edozein egitasmo, ekintza, kirol, kurtso, jardunaldik... inklusioaren ikuspegia landua izatea nahiko genuke eta gure indarrak hor ipiniko ditugu.

Bestalde, badakigu batzuetan aniztasun funtzionala duten pertsonen beharren arabera ezingo dugula edozein aktibitate edo ekintzetan parte hartu, kasu hauetan Marea Urdina Elkarte egokitutako iharduerak antolatzen saiatuko da.



Azkenik eta ez garrantzi gutxiago duelako, sentsibilizazio eta kontzientziazio ekimenak bultzatuko ditugu gure bailaran. Iazko Marea Urdinetik zerbait ikasi bagenuen sentsibilizazioa zela gizarte inklusibo bat eraikitzeko zimentu edo oinarria izan zen.





2. GENERO ERAGINARI BURUZKO INFORMAZIOA

Marea Urdina Elkartearen helburua inklusioa da, aniztasun funtzionala duten pertsona ororen inklusioa, neska, mutil edo generorik gabeak izan.

Generoaren ikuspegiaren gainetik dago gure begirada, gure bailaran bizi den pertsona guztiak gizartearen parte izateko eskubidea izateko egiten dugu lana, hezkuntza, kirolean, aisialdia eta kulturean.

Datu batzuk ematearren:

- Gure talde eragilean 4 emakumezko eta 4 gizonezkoak osatzen dugu.
- Elkartearen bazkideetatik 13 neskak eta 12 mutilak dira.
- Antolatzen ditugun egitasmo eta sentsibilizazio ekintza guztietan neska eta mutilak era berdintsuan parte hartzen dute (ikus grabatuta ditugun bideoak edo irudiak).

Horregatik gure leloa “Denok gara Marea Urdina” izan ohi da.



3. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK

Marea Urdineko kideak 2022 urtean parte hartu duten jarduera INKLUSIBO, EGOKITUTAKO ekimen eta egin diren KONTZIENTZIAZIO ihardueren berri emango dugu hemen.

Zein helbururi egiten dion erreferentzia goiburuaren kolorearekin adieraziko dugu.

Jarduera arrunta

Egokitutako jarduera

Kontzientziazio jarduera

Informazio guzti hau ondorengo lekuetan aurkitu dezakezue:

Web orrian: <https://www.mareaurdina.org/>

Facebook: <https://www.facebook.com/mareaurdina2018>

Twitter: <https://twitter.com/mareaurdina>

Instagram: <https://www.instagram.com/mareaurdina/>

Blogger: <https://mareaurdina.blogspot.com/>

Youtube: <https://www.youtube.com/mareaurdina>



BHI ikastetxetan sentsibilizazio saioak

BHI ikastetxean DBH1-eko maila osoarekin egin ditugun sentsibilizazio saioak. Eta...bailara osoko umeak sentsibilizatzen baditugu? Eta etorkizuneko gizarte inklusibo batekin amesten badugu? Laster gatoz proiektu berri batekin: Ikas-Jolas-Ni-Inklusiboa





Azkoitiko duatloiaren aurkezpena

Azkoitiko Duatloiaren aurkezpenean izan ginen atzo, aurten ere Azkoitri-tik aniztasun funtzionala duten pertsonen parte hartzea bultzatuko da eta nola ez gu ere han izango gara.

Gora Azkoitri! Zuek ere URDIN!





Izarraitz LH-ko irakasleekin jarduera

Izarraitz Lanbide Heziketako irakasleekin egon gara. Biketalent lehiaketan diseinatu behar duten bizikletan aniztasun funtzionala duten pertsonak dituzten beharrak azaltzen. Gora zuek! Zuek ere URDIN!



Nik aurkitu dut erronka

Aurten erronka berri batekin gatoz domusa teknik 40 mlk lasterketarako.



Nork ez du ezagutzen marea urdinako furgoneta?

“NIK AURKITU DUT” erronka martxan jartzen dugu.

Asteburu honetatik hasi eta maiatzak 4 arteko asteburu guztietan marea urdinako furgoneta lasterketako ibilbidean ezkutatuko dugu.

Egin behar duzuen ondorengo da:

1. Furgoneta aurkitu
2. Furgonetarekin argazki bat atera
3. Argazkia guri bidali (facebook messenger, instagram, X, email edo nikaurkitudut.org web orritik)

Astebururo horrelako 3 kamiseta zozketatuko ditugu parte hartzaileen artean.

Guztira 8 asteburu, 8 kokapen desberdin.

Animatu!


Nik aurkitu dut!

 #NIKAURKITUDUT Erronka Martxoak 9/10  IRABAZLEA Izena: OrbeLexplore Lekua: Anoa-Gune Urdina	 #NIKAURKITUDUT Erronka Martxoak 9/10  IRABAZLEA Izena: Gurutz Lekua: Anoa-Gune Urdina	 #NIKAURKITUDUT Erronka Martxoak 9/10  IRABAZLEA Izena: Nora Lekua: Anoa-Gune Urdina
---	---	--

Azkoitia-Azpeitia Erdi Maratoiaren aurkezpenean



Izan ginen Azkoitia-Azpeitia Erdi Maratoiaren aurkezpenean, mila esker gonbidapenarengatik. Beti izango gara inklusioaren alde egiten duenaren bidelagun. Gora zuek! Zuek era URDIN!





Korrika 2024

Lagun Onak MB-rekin batera egin genuen Korrikako Kilometro Urdina. Eskerrik asko gurekin batera korrika egin zenuten guztioi eta nola ez Korrika 2024ri eman diguzuen oihartzunagatik. Zuek ere URDIN!





M.Urdina-Izarraitz Igeriketa Egokituko Saria

Apirilak 13an Marea Urdina-Izarraitz Igeriketa Egokituko Saria antolatu dugu. Sari honen lehenengo zatia federatu gabeko eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzat izango da, edozein dela bere igeriketa maila (25 eta 50 metroko proba izango dute aukeran)

 Marea Urdina- Izarraitz Igeriketa Egokitu Saria

Azpeitiko Udal Igerilekuan

 Apirilak 13, larunbata.



#mareaurdina



Iraurgik gure materiala erabili sentsilizatzeko

Aniztasun funtzionala duten pertsonen egunerokoa hobeto ulertzeko proposamena luzatu genien ikastetxeei duela gutxi. Kanpotik ikusita, gutxi-asko ulertzen dugula iruditu ohi bai da, baina zailtasunak norbere azalean sentitzeak askoz ikuspegi benetakoagoa ematen digu. Horrela Iraurgi ikastetxeak gure materiala erabilita kirol esparruan landu dute sentsibilizazioa eta bukatzeko geu joan gara hitzalditxo bat ematera.

Garbi geratu da inklusioaren begirada lantzeko konpromisoa hartuta duela Iraurgik ikastetxe bezala, hori ere zaintzea baita. Bejondeizuela! Zuek ere URDIN!

Irudiak: Iraurgi Ikastetxea



Carmen Belmarren hitzaldiak

Maiatzak 3-4ko aste-bukaeran Carmen Belmar eta bere laguntzaileak gure artean izan genituen, bost alditan Espainiako txapeldunak ikusmen urritasuna dutenen kategoriako mendi lasterketetan.



Ostiralean Azpeiti eta Azkoitiko ikasleei, kirola eta mendiarekin duten pasioa partekatu zuten, eta hauek animatu inklusioaren alde egitera. Larunbatean berriz Domusa Teknik 15mlk lasterketan parte hartu zuten. Zirraraz betetako aste-bukaera, kirola eta mendian ere inklusioa landu dezakegunaren adibidea. Gure eskerrik beroenak Domusa Teknik 40 mlk lasterketari hau posible izateko emandako laguntzagatik. Carmen Belmar, Jose, M. Ángeles eta Vicentari txapelketako lasterketa bati uko egiteagatik gure artean izateko. Eta nola ez, mendiari...





#mareaurdina

Trail Martxa Urdina

Maiatzak 4an Domusa Teknik 40 MLK lasterketaz gain, beste lasterketa bat egon zen. Denok parte hartu genuena eta denok irabazi genuena, berau Trail Martxa Urdina izan zen eta ehunka ume eta gurasok egin genuen, denok inklusioaren alde.



Domusa Teknik 40MLK-ko anoa-gunea



Honezkero badakizue Domusa Teknik 40 MLK lasterketako anoa gune garrantzitsuena inklusioaren anoa gunea izaten dela, badakizu zer bilatuko duzun bertan? Hemen duzue egitaraua.

Zatozte Ikasberriko aparkalekura, zatozte inklusioaren anoa gunera, ANOA-GUNE URDINA-ra.

Zuek ere URDIN!



Zatoz
Anoa-Gune
urdina_{ra}!

ANOA-GUNE URDINA

EGTARAUA

Maiatzak 3 - OSTIRALA

CARMEN BELMAR-EN HITZALDIAK

- 10:30 SOREASU ANTZOKIA (AZPEITIA)
- 15:15 FLOREAGA IKASTETXEA (AZKOITIA)

Maiatzak 4 - LARUNBATA

AZPEITIKO PLAZAN

- 9:30 II MARTXA TRAIL URDINA HASIERA

ANOA-GUNEAN

- 9:30 LEHEN KORRIKALARIARI ONGI ETORRIA (LASTERKETA MOTZA)
- 11:00 II MARTXA TRAIL URDINAREN IRITSIERA eta INKLUSIOAREN ALDARRIKAPEN IRAKURKETA
- 11:00 SENTSIBILIZAZIO JOLASAK, PHOTOCALL...
- 13:00 ATRACCIONES SANZ-en PUZGARRIAK
- 14:00 LEHEN KORRIKALARIARI ONGI ETORRIA (LASTERKETA LUZEA)
- 12:30
- 12:00 EUSKO LABEL-en ESKUTIK PINTXO ETA EDARIAK
- 16:00
- 17:45 AZKEN KORRIKALARIARI ONGI ETORRIA ETA AMAIERA



Martxa Trail
URDINA



ATRACCIONES
SANZ



IK




#mareaurdina



DOMUSA



MUSIKA
MAREA
URDINA





Mario Ylleraí ongi etorria

Mario Yllera ezagutzen duzu? ELA edo/eta gaixotasunen bat dutenen alde egiten du korrika, konkretuki PURA VIDA CHALLENGE 5500 erronka egiten ari da. Bazenekien Domusa 40MLK egiteko bidean datorrela? Eta, gainera, korrika! Zatoz larunbatean gure Anoa-Gunera berari ongi etorria egitera, zatoz inklusioaren anoa gunera, Anoa-Gune URDINERA.





Biba Zueken Malen

Maiatzak 8 asteazkena 18:00etan ETB1ean Biba Zuek saioan Marea Urdina izango da bertan. Elkaratearen berri emateaz gain, elkarteko kide bati elkarriketa egingo diote, gure kasuan, elkarteko “txikiena” aukeratu dugu horretarako, Maren.

Marenek CDKL5 Urritasunaren Sindromea pairatzen du eta bere aita Jonek beraien egunerokoa nolakoa den azalduko du eta nola ez beraien esperantza non jarria duten. Zein izango da beraiek aukeratuko duten hitza?



Iren Biba Zueken

Biba Zueken-en Marea Urdinako kide den Iren eta bere ama Veronicak errepikatzen dute. Oraingoan ere Duchenneri buruzko kontzientzia sortzen jarraitzeko eta batez ere beraien seme-alabentzako kanpamendu berezien beharizaneiei buruz hitz egiteko. Duchenne familia talde batek bat egin dute eta elkarrekin pausoz-pauso beraien neska-mutil askoren ametsa egia bihurtzen ari dira: DA (Duchenne Azpeitia) Familia Kanpamentua.



#mareaurdina

Abuztuaren 9tik 15era, Azpeitia Duchenez jantziko da. 14 familia inguru bilduko dira beraien seme-alabekin, begiraleekin, boluntarioekin, fisioterapeutekin... guztien artean Duchenneko Distrofia Muskularra duten haurrentzako lehen kanpamentu familiarra eraikitzeko. Gaixotasun hori krudela, endekapenezkoa, aurreikusi ezina... da, eta beraien haur askorentzat kanpamendu bat gurasoek eta eguneroko zaintzaileek lagunduta baino ezin da egin. Astelehenean 18:00etatik 19:45era ETB1en, BIBA ZUEK saioan zuekin egongo dira berriro eta kanpamentu berezi hau lortzeko ilusioa eta gogoia transmititzea espero dute.



Xabier Munibe 40. Parte-Hartze Herrikoa

Aurtengo Ikas Kirol Krossa (Xabier Munibe 40. Parte-Hartze Herrikoa) inoiz baino inklusiboagoa izango da, antolakuntzatik eta Marea Urdinatik aniztasun funtzionala duten ume



guztiak animatu nahiko genituzke kirolaren festa zoragarri honetan parte hartzera. Animatu eta zatoz Ekainak 2an Azkoitira!

XM 40. PARTE-HARTZE HERRIKOIA

Inklusiboa

ekainak 2 2024 igandea

Ibilbidea:
buruko informazioa

Taldeak eta irteerak

LN 3	11:15	(1.100 m)
LN 4	11:25	(1.100 m)
LN 5	11:35	(1.500 m)
LN 6	11:45	(1.500 m)
LN 1	10:55	(550 m)
LN 2	11:05	(550 m)
DBN 1/2	11:55	(2.000 m)

12:30ean Sari banaketa

ANTOLATZALEA:

BABESLEAK:



Urretxuko Aniztasun Jaian



#mareaurdina

Urretxuko Aniztasun Jaian izan gara gaur. Gizarte hau anitza delako eta denok osatzen dugulako.
Gora zuek!



Heraldatur Ha(sz)i Jardunaldietan



#mareaurdina

Bilbao AS Fabrik-en egon gara, Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleekin, Eraldatuz Ha(sz)i Jardunaldian. Aniztasuna, ongizate emozionala eta hizkuntzaren erabileraren inguruan hitz egin dugu.

Mila esker horrelako ekimen aberasgarrian parte hartzera gonbidatzeagaitik.
Zuek ere URDIN!





Javi Alberdiren Memorial Solidarioan parte hartzea

Ermuan Javi Alberdiren Memorial Solidarioan parte hartu genuen, gure sentsibilizazio jolasekin aniztasun funtzional ezberdinak dituzten pertsonen lekuan jarritz haur eta helduak. Plazer handi bat izan zen.

Gora zuek! Zuek ere URDIN!





Saninazioetan kontzertuetako gune egokitua

Aurtengo Saninazioetan plazan izango diren kontzertuetarako aniztasun funtzionala dutenentzat gunea egokituko du Azpeitiko Udalak kioskoan. Neurri honekin eta iaz bezala, mugikortasun arazoak eta/edo jendetza artean egoteko arazoak dituzten pertsonak festaz hobeto gozatzeko pauso bat eman nahi izan du udalak. Azpeitia Denontzat! Gora zuek! Zuek ere URDIN!





Andremari jaietan gune egokituak

Aurtengo Andremari jaietan festetaz gozatzeko denentzako aukerak izango ditugu:

- Leku egokitua txupinazoan
- Kontzertuetaz gozatzeko leku egokitua kultur etxean
- Barraketan musikarik gabeko ordutegia eta lehenatasuna.

Galdu egingo duzu?



#mareaurdina



Zubiaurre Master Taldeak egindako “korto”-an parte hartzea



Izeta Bikote Mistoen Mendi Lasterketan

Aurten ere Izeta Bikote Mistoen Mendi-Lasterketa Solidarioan bidelagun izango gara. Animatu! laz bezalako polita izango baita. Mila esker Izetatarrei! Zuek ere URDIN!

 Irailak 22, Igandea



🕒 9:30 am

🇪🇸 Izeta Sagardotegian

IZETA
BIKOTE MISTOEN
MENDI-LASTERKETA
SOLIDARIOA
6,4km
Izeta
Sagardotegia



II. EDIZIOA
2024
IRAILAK 22
9:30
+420
DESPIBELA
kronoak.com
ONDOREN,
HAURREN LASTERKETA
IZANGO DA
14 URTE BITARTEAN
700metro
#mareaurdina



Kamiseta berriak salgai

Marea Urdinako niki berriak jarri ditugu jada salgai:

💰 10€



#mareaurdina

 Eguzki Belardenda (Azpeitia eta Azkoitia)



Kilometroak 2024an erronka

Kilometroak 2024an Marea Urdinak antolatutako sentsibilizazio erronka antolatu genuen. Benetan goiz ederra pasa genuen, gora zuek!



Ikas-Jolas ni inklusiboa proiektua



Martxan daukagu "Ikas-jolas ni inklusiboa" proiektua. Azpeiti eta Azkoitiko ikastetxe guztietan landuko duguna. Etorkizuneko gizartea sentzibilizatu eta aniztasun funtzionala dutenentzat ingurune inklusiboagoa izan dezagun lantzeko asmotan.




Igeriketa ikastaroak emateko piktogramak



#mareaurdina

Errekurtso berriak jarri ditugu gure web orrian, oraingoan igeriketako ikastaroak emateko piktograma sorta, ulermen arazoak dituzten pertsonentzat egokitua.

Deskargatu, erabili eta zabaltu itzazu!





Marea Urdinak eginiko publikazio honek “Creative CommonsReconocimiento-SinObraDerivada 3.0 Unported” lizentzia du